



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2780/22_46

2023-2026 Euskal Estatistika Planari buruzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea aldatzea helburu duen Legearen berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan uztailaren 15ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, EUSTAT- Euskal Estatistika Erakundearen eta Lege Administrazio Kudeaketatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Xedapenaren prozedurari abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea aplikatu behar zaio, nahiz eta indargabetuta egon, ekainaren 30eko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen xedapen iragankorrak dioenaren arabera, prozedura uztailaren 16a baino lehenago hasi zelako.

Eskaera horri erantzunez, *xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua*, eta *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren* 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena apirilaren 12koa da eta oraindik ez da Tramitagunera igo Zerbitzu Juridikoaren txostena. Kontuan hartuta uztailaren 15ean egin zitzaigula txosten eskaera



Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, **ez da bete aipatutako Dekretuak araututakoa**, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegiari buruzko txostena saileko Zerbitzuko Juridikoaren txosten juridikoa egin ondoren eskatu behar delako.

Hala ere, 233/2012 Dekretuak 15 eguneko epea ezartzen duenez txostena emateko eta ikusita oraindik ez dela txosten juridikoa Tramitagunera igo, epea ez igaro dadin, hizkuntza normalizazioari buruzko txostena egitea erabaki dugu.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Agindu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Hizkuntza politika eraginkorra gauzatzeko, ezinbestekoak dira hizkuntzaren egoeraren ezagutza zein egoeraren bilakaera neurtzeko tresnak.

Legean jasotzen diren eragiketa estatistikoak lagungarriak dira oso euskararen normalizaziorako politikak diseinatzeko eta horien egokitasuna neurtzeko.

Ildo horretatik, garrantzi handikoak dira bai propio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik bideratutakoak zein beste organo batzuekin elkarlanean horiek kudeatzen dituztenetan txertatutako adierazleak. Gomendagarria litzateke bigarren bide honetan sakontzen jarraitzea.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez arautu zen EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretuaren 6. artikulua ezartzen du

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintzaldi bakoitzaren tartean eta amaieran txosten bat igorri behar diola Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluari, herri administrazioetan hizkuntza normalizazioa zertan den ebaluatu eta ezagutzera eman dezan.

Ebaluazio horiek egiteko espezialitate-maila handia behar da, izan ere, erakunde baten barnean euskararen erabilerak hartzen dituen esparru guztien ezagutza sakona izan behar da eta datuen bilketan zein ustiaketan eskarmentu handia erakutsi. Gainera, bildutako informazio hori guztia kudeatzeko moduko aplikazio informatikoak eduki eta erabiltzen jakin behar da.

2018-2022 Euskal Estatistika Planari buruzko gure zuzendaritzako txostenean eskatu genuen planen ebaluazioak Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Estatistikoaren barruan sartzea EUSTATEk horri buruzko landa-lana egin zezan. Ez zen gure ekarpena onartu.

Oraingoan, berriro ere, Lege Proiektuaren eranskina arakatuta ez dugu aurkitu aipatutako ebaluaketa egiteko aurreikuspena; hori horrela errepikatzen dugu eskertuko genukeela hutsune hori zuzenduko bazenute, jarduera estatistiko hori ere EUSTATen bitartez burutu ahal izateko.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria